

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Odola emateko unitate mugikorrek Nafarroako 40 herri bisitatuko ditu udako hilabeteetan

Nafarroako Odol eta EHunen Bankuak odola ematera deitu du Sanferminetarakoneta udarako erresebak igotzeko

Asteazkena, 2018.eko ekainak 27

Nafarroako Odol eta EHunen Bankuak gogoratu die gaur herritarrei, nahitaezkoa dela egunotan odola ematea udako oporretarako nahiz Sanferminetarako erresebak igo ahal izateko, garai hauetan handiagoa izaten baita transfusioen beharra. Horren kariaz nabarmendu du odola emateko unitate mugikorrek 40 herri bisitatuko dituela udako hilabeteetan eta Iruñeko nahiz Tuterako egoitza finkoak irekita egonen direla, herri bateko zein besteko jaiek eragindako ordutegi-aldaketa txiki batzuen gainetik.



Odol-emaile bati odola ateratzen.

Deialdia odola emateko hitzordua jaso duten ohiko odol-emaileei zuzenduta dago, azken lau hilabeteetan (gizonen kasuan) edo azken hiru hilabeteetan (emakumeen kasuan) odol-ematerik egin ez duten emaileei, eta odola lehendabiziko aldiz emateko asmoa duten guztiei, datozen asteotan Iruñeko eta Tuterako odola emateko zentroetara edota Nafarroako gainerako herrietan odol-emateak errazteko ibiliko den unitate mugikorrera jo dezaten. Gonbidapen berezia egin da herrietako odol-emateak areagotzeko, inguru horietako odol-emaileen kopuruan antzematen ari den murrizketari aurre egin eta belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko asmoz.

Odola emateko unitate mugikorrek hasiera eman dio dagoeneko udako [programazioari](#), honako geldialdi hauekin: Viana, San Martín Unx, Erriberri eta Lodosa. Gaurtik aurrera, hiru egun egingen ditu Tafallan: gaur arratsaldean eta bihar, 16:45etik 20:30era, eta ostiralean 9:15etik 13:00etara. Uztailean, udalerrri hauetan izanen da: Goizueta (uztailak 2), Lodosa (3), Otsagabia (4), Murchante (5), Altsasu (9, 10, 11 eta 12), Artaxoa (13), Buñuel (16 eta 23), Castejón (17 eta 24), Azkoien (18, 19 eta 20), Arbizu (25), Caparroso (26 eta 27), Cárcar (30) eta Fitero (31).

Abuztuan, autobusak honako herri hauek bisitatuko ditu: Lerin (hilak 1), Cadreita (2), Milagro (3), Sesma (6), Cabanillas (7), Elizondo (8, 9 eta 10), Lesaka (13), Andosilla (14), Doneztebe (16, 17 eta 20), Andosilla

(21), Bera (22 eta 24), Ablitas (23), Ziordia (27), Monteagudo (28), Oteitz (29) eta Lizarra (hemen, unitate mugikorrek sei eguneko geldialdia egingo du abuztuaren 30 eta 31n eta irailaren 3tik 6ra bitartean). Irailean, autobusa udalerrri hauetan izanen da: Larraga (hilak 7), Fustiñana (10 eta 17), Leitza (11), Cortes (12), Irurtzun (13), Oibar (14), Valtierra (18 eta 25), Etxarri-Aranatz (19 eta 26), Cortes (20), Cáseda (21), Falces (24) eta Discastillo (27 eta 28)

Plasma aferesi bidez emateko kanpaina

Nafarroako Odol eta EHunen Bankuak adierazi duenez, egun dauden odol-beharrak A taldeko Rh negatiboari eta B taldeko Rh negatiboari eta positiboari dagozkiola bereziki. Horrekin batera gogoratu du aferesi bidezko plasma-emaileak lortzeko [kanpaina](#) abian duela, osagai hau garrantzi handikoa baita arriskuko paziente hemato-onkologikoen tratamendurako eta kirurgia kardiakoa edo trasplantea egin zaien pertsonendako. Plasmaren kasuan, beharrak A eta AB taldeei dagozkie nagusiki, eta horren harira, Odol eta Ehunen Bankuak odola ateratzeko zentroetara joatera animatu ditu odol-emaileak, odola ateratzeko modalitate hau egiteko aukerarik ote duten informa daitezen.

Aferesia deritzon odola ateratzeko teknika osagaiak bereizten dituen gailu batez baliatzen da, beharrezkoak aukeratuz eta gainerakoak odolara itzuliz. Prozesuak ordubete inguruko iraupena du eta ohiko odol-ateratzeak egiten diren ohatila beretan egiten da.

Odol eta Ehunen Bankuak gogoratu du gomendagarria dela dohaintzen fluxu jarraitu eta etengabea mantentzea eta, ahal den neurrian, odol-emaileen bat-bateko pilaketa saihestea, egindako odol-emaizen iraungipenak areagotu ez daitezen.

Udako ordutegia eta herrietako jaiak

Udako egun gehienetan, arreta emateko ordutegia ohikoa izango da Iruñean dauden odola emateko bi zentroetan (8:00etatik 20:00etara astelehenetik ostegunera eta 8:00etatik 14:30etara ostiraletan) eta Tuterakoan (8:15etik 13:45era astelehenetik ostiralera eta 17:00etatik 20:00etara astarte eta ostegunetan). Iruñean, ordutegia aldatuko da Sanferminetan (hilaren 6an ordutegia 11:45ean itxiko da, hilaren 9 eta 10ean ez da zerbitzurik izango eta hilaren 11, 12 eta 13an, ordutegia 9:15etik 12:45era bitartekoa izango da), eta abuztuaren 6tik 16ra ez da arratsaldeko zerbitzurik izango. Tuteran, egoitza itxita egonen da Santa Anaren jaiak dirauten bitartean, uztailearen 23tik 31ra bitartean.

Iruñean, odol-emaileen arreta hobetu eta itxaronaldiak saihesteko, Nafarroako Odol eta EHunen Bankuak –Irunlarrea kaleko 3an- alde zentralerako hitzordu sistema duela gogoratu nahi die horretaz baliatu nahi dutenei, eta horretarako 848 422500 telefonora deitu besterik ez dute. Bestetik, Tuteran, odola emateko zentroa Eza kaleko 2. zenbakian dago.